

BAIMENDUAK

1

BASERRITARRA

Merkatu Plazan tokiko produktuak saltzeko jarduera duten baserritarrak dira, beti ere udal-baimena indarrean badago.

2

EGOILIARRA

Oinezkoen Guneak arautzen duen Ordenantzaren aplikazio-eremuan deskribatutako kaleren batean erroldatutako pertsona fisikoak dira egoiliarak.

3

URTEKO EGOILIARRA

Urteko egoiliartzat hartuko dira ordenantza honen eremuan erroldatuta egon baina ibilgailuaren aseguruan ohiko gidari gisa agertzen ez diren pertsonak.

4

EGOILARRA ETA GARAJEKO PLAZA

Oinezkoen Gunea eta Emisio Baxuen Gunea arautzeko Ordenantzaren aplikazio-eremuan deskribatutako kaleren batean erroldatuta dauden eta bertan garaje-plaza bat duten pertsona fisikoak dira.

5

GARAJEKO PLAZA

Garaje-plazatzat hartzen da Oinezkoen Guneak arautzeko ordenantzaren aplikazio-eremuan deskribatutako kaleren batean garaje- plaza bat jabetzan, errentan edo erabiltzeko eskubidea duten pertsona fisikoak eta juridikoak.

6

GREMIOA

Gremiotzat hartzen dira Oinezkoen Gunearen barruan konponketekin edo etxeko obrekin lotutako jarduera ekonomikoak egiten dituzten profesionalak.

7

HORNITZAILEA

Zamalanak egiten dituzten garraiolariak, horretarako ibilgailu egokien bidez, Oinezkoen Gunean deskribatutako ostalaritza-establezimenduak, dendak edo kaleetako etxe partikularrak hornitzeko.

8

MERKATARITZA ETA OSTALARITZA

Saltokitatzat hartzen dira Ordenantzak arautzen duen eremu espazialean egiten duten merkataritza-jardueren eta/edo ostalaritza-jardueren jabeak.

9

MUGIKORTASUN MURRIZTUA

Oinezkoen Gunea eta Emisio Baxuen Gunea arautzen duen Ordenantzaren espazio-eremuan deskribatutako kaleetako batean bizi diren eta honako egoera hauetakoren batean dauden pertsonak:

- 70 urtetik gorako pertsonak
- Desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela duten pertsonak, sail eskudunak emandakoak.
- Mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonak, medikuaren txostenaren bidez egiaztatuta.